



Elorrioko udala

IRAGARKIA

Autoaren gidabaimenaren azterketa teorikoa euskaraz gaintitzeagatik 2026 urteko dirulaguntzaren deialdia eta oinarriak. (2026-00999 espedientea)

Alkatetza-ebazpen bidez, 2026ko apirilaren 9an autoaren gidabaimenaren azterketa teorikoa euskaraz gaintitzeagatik, 2026ko dirulaguntza deialdia eta oinarriak onartzea erabaki zen. Beraz, dagozkion oinarri espezifikoak osorik argitaratzen dira.

Deialdi hau 2008ko abenduaren 18an egindako Ohiko Osoko Bilkuran onartutako Dirulaguntzen Oinarri Arautzaileen arabera egin da (2009ko martxoaren 9ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuak). Bi aldaketa izan zituen: lehena, 2010eko otsailaren 11n Osoko Bilkurak onartua (eta maiatzaren 10ean BAOn argitaratua) eta bigarrena, 2011ko abenduaren 28an Osoko Bilkurak onartua (2012ko otsailaren 10ean BAOn argitaratua).

Elorrian, 2026ko apirilaren 10ean

Maria Herrero Arriolabengoa

Jarduneko alkatea



**AUTOAREN GIDABAIMENAREN AZTERKETA TEORIKOA EUSKARAZ
GAINDITZEAGATIK 2026KO DIRULAGUNTZAREN BERARIAZKO OINARRIAK ETA
DEIALDIA (2026-00999 esped.)**

Elorrioko Udalak, 2010eko otsailaren 11ko Udalbatzaren Ohiko saioan, Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra onartu zuen, 2010eko maiatzaren 10ean argitara eman zirenak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

Era berean, oinarri hauek martxoaren 1eko 1/2023 Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea zein Elorrioko Berdintasunerako V. Plana (2025-2030) aintzat hartuta bete beharko dira.

Aurreko guztia kontuan hartuta eta Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoari jarraiki, dirulaguntza hauetarako deialdia egiten dut, ondoko oinarrien arabera.

1. DIRULAGUNTZAREN XEDEA

Elorrioko Udaleko Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren ardatz estrategikoei jarraituta, dirulaguntza honen xedeen artean euskara gizarteko alor guztietan sustatzea litzateke. Beraz, arau hauen xedea auto gidabaimenaren azterketa teorikoa euskaraz gainditzeagatik dirulaguntzaren eskaera eta esleipena arautzen duten oinarri bereziak onartzea da.

2. AURREKONTU KREDITUA ETA DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA

Dirulaguntza hauetarako erabilgarri dagoen kreditua 2.000 eurokoa da, eta dagokion gastua 2026ko 3350.481.11 aurrekontu-partidari ("Euskara taldeei dirulaguntzak") egotziko zaio.

3. ONURADUNAK

Dirulaguntza honen onuradunak, azterketa teorikoa gainditze egunean Elorriko erroldatutako 17-25 urte bitarteko, biak barne, pertsona fisikoak dira; beti ere, 38/2003 Legeak, Dirulaguntzen Orokorrak, 13. artikuluan edo Dirulaguntzen Udal Ordenantza Orokorrak 10. artikuluan jasotzen dituen egoeretako batean aurkitzen ez badira.

Ezin izango dira dirulaguntza hauen onuradun izan administrazio-bidean, lan-bidean edo zigor-bidean zehapen irmoa jaso duten pertsonak edo berdintasunerako eskubidea urratzeagatik eta sexuan oinarritutako diskriminazioa erabili dutenak.

Dirulaguntza honetatik kanpo geratuko dira ere zigor- edo administrazio-arloan dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zigortuta dauden pertsonak, ez eta horretarako ezgaitzen dituen legezko debekuen eraginpean daudenek ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren eta Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Eragingarritako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren arabera, sexu-arrazoiengatik diskriminazioa barne.



4. ESKABIDEAK ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1.- Eskabideak aurkezteko epea deialdiaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta, biharamunetik zenbatzen hasita, 2026ko urriaren 23ra arte aurkeztu ahal izango dira.

Deialdi honen barruan, laguntzak 2025ean edo 2026an egindako azterketetarako eskatu ahal izango dira.

Dirulaguntza hau behin baino ezingo da eman.

Erabili beharreko eskabide-orria I. eranskinean agertzen dena izango da. Berau Elorrioko udaletxeko HAZ-SAC erregistro-orokorrean aurkeztuko da 08.00ak eta 14:30 bitartean. Bestalde, eskabide-orriak aurkeztu ahal izango dira urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aurreikusten dituen beste bide batzuen bitartez.

2.- Eskabideak, Elorrioko Udalak laguntza horietarako ezarritako eredu espezifikoan aurkeztuko dira, eta eskabidearekin batera, honako agiri hauek ere aurkeztu beharko dira:

1. DGTren Trafiko Buruzagitzako egiaztagiria, zein egunetan eta zein hizkuntzatan egin den azterketa jasotzen duena.

2. Autoeslak egindako jatorrizko faktura edo fotokopia konpultsatua lehenengo lau klase praktikoen prezioa eta data jasotzen dituena.

3. Hirugarrenen alta behar bezala beteta. Agiri hau paperean edo online egin daiteke. Agiri hauek ez dira aurkeztu behar izango aurreko urteetan Elorrioko Udalak egindako deialdietan aurkeztu badira, beti ere, agiri horiek edo hauek jasotzen dituzten datuak aldatu ez badira.

<https://www.elorrio.eus/eu-ES/lzapideak/Orriak/procedimiento-detalle.aspx?id=295cb091-c85c-4be0-b4f4-c485119cdb35>

4. Karnetaren (NAN), pasaportearen edo AIZren fotokopia.

Eskaera aurkezteak, eskatzailearen aldetik Elorrioko Udaleko Euskara eta Hezkuntza Sailari baimena ematea dakar udaleko Diruzaintza eta Estatistika sailetan dirulaguntza deialdi honetan eskatutako datuak kontsultatzeko.

3.- Hasierako eskabideak urriaren 1eko 39/2015 Legearen 66. artikuluan adierazitako betekizunak bete ezean, edo 67. artikuluan adierazitakoak, edo aplikatzekoa den berariazko legeriak eskatutako beste batzuk, hamar laneguneko epean interesdunari akatsa zuzentzeko eskatuko zaio, edo nahitaezko agiriak aurkezteko; eta adieraziko zaio, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, 21. artikuluan aurreikusitako baldintzetan jasotzen den eran.



5. DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA ETA PROZEDURA

Eskabide bakoitzaren lehenengo lau klase praktikoak ordainduko dira; gehienezko laguntza 200 euro.

Dirulaguntzaren onuradun izateko oinarri hauetan jasotako baldintza guztiak bete beharko dituzte eskatzaileek.

Eskabide guztiak berrikusi ondoren, laguntzak jasotzeko baldintzak betetzen dituztenek eskatutako zenbatekoen batura deialdiaren xede den zenbatekoa baino handiagoa bada, zenbateko hori onuradunen artean hainbanatuko da.

Dena den, Udalak hala erabakiz gero, aurrekontua handitu egin ahal izango da beste dirulaguntza deialdirik deitu behar izan gabe.

6. PROZEDURA, INSTRUKZIOA ETA ERABAKIA

1.- Eskabideak aurkezteko epea itxi ondoren, arloko zerbitzu teknikoek eskabideak eta agiriak aztertuko dituzte balorazio-txostena egiteko. Euskara eta Hezkuntza Informazio Batzordeak balorazio-txostenaren diktamena aurkeztuko du Tokiko Gobernu Batzarrak ebazteko.

Dirulaguntzen instrukzio organoa osatuko dutenen arteko genero parekidetasuna egongo da. Ordezkaritza orekatua dagoela ulertuko da lau kideetik gorako organoetan sexu bakoitzeko kideek %40ko ordezkaritza dutenean gutxienez. Gainerako kasuetan, pertsona bakarrekoa ez bada, sexu bietako pertsonak ordezkatu beharko dituzte.

Fase honetan Elorrioko Udalak, instrukzio organoaren bitartez, aurkeztu diren proposamenak konparatu eta baloratu beharko ditu, onuraduna nor izango den zehazteko emakume eta gizonen arteko berdintasun irizpidea kontuan hartuz.

2.- Prozeduraren gaineko erabakia hartzeko eta jakinarazpena egiteko epea ez da sei hilabete baino gehiago luzatuko. Gehienezko epe hau igaro bada erabakiaren gaineko bidezko jakinarazpenik barik, interesdunek ulertu beharko dute eskaera, administrazio-isilbidez, atzera bota dela.

Interesdunek Erabakiaren jakinarazpena urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40 artikulua eta hurrengoek arautzen duten eran betez jasoko dute.

Hartutako erabakiak administrazio bideari amaiera emongo dio, eta erabakiaren kontra Udaleko alkatearen aurrean berraztertze errekurtsoa tartekatze aukera egongo da, edo baita zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa tartekatze Bilboko dagokion auzitegian. Hori guztia, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikulua eta hurrengoek, eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen 29/1998 Legearen arabera.



7. BATERAGARRITASUNA BESTE DIRULAGUNTZA BATZUEKIN

Dirulaguntza hau, helburu bera duten beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu, nazionala edo Europakoak, edo nazioarteko beste erakunde batzuetako beste dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin bateragarriak dira, ez bada dirulaguntzen berezitasunetako bat bateragarria ez izatea. Jasotako laguntzak ikertuko dira gain finantzaketarik egon ez dadin.

8. ELKARRERAGINGARRITASUNA: ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEA AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA BERRIKUSTEKO ETA IKUSKATZEKO.

Elorrioko Udalak dokumentuak eta informazioa eskatu ahal izango dizkie beste administrazio batzuei, elkarreragingarritasunaren esparruan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikulua eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 5. artikulua arabera. Horren helburua da eskatutako dirulaguntzen kudeaketa erraztea eta administrazio-izapideen eraginkortasuna bermatzea.

Udal honek beste administrazio batzuetan norbere datuak eta dokumentuak kontsulta ez ditzan eskubidea du eskatzaileak. Eskubide horretaz baliatzea erabakitzen badu, behar bezala arrazoitutako idatzia egin beharko du, eta zergatia adierazi. Behar den moduan arrazoitu gabeko erabateko ezetzik ez da onartuko.

Datuak eskatzearen aurka egiteko idatzia dirulaguntzak eskatzeko epean aurkeztu behar du.

Oposiziorako idatzian honako datu hauek zehaztu behar ditu behintzat, eskatzaileak:

- Eskatzailearen datuak.
- Zer dokumentu edo datuei egiten dien aurka zehaztu.
- Informazioa kontsultatzearen aurka egiteko arrazoiak adierazi eta haien justifikazioa.

Eskatzaileak baliozko oposizio arrazoitua aurkezten badu, Administrazioak oposizio hori ebaluatuko du, eta erabakiko du ea egokia den beste administrazio batzuei dokumentuak eskatzen jarraitzea. Oposizioa ezesten bada, dirulaguntza izapidetzeko behar den informazioa eskatuko da.

Dirulaguntzen eskaerak sinatzeak berekin dakar dirulaguntzaren oinarrietako baldintzak onartzea, eta dokumentuak kontsultatzearen aurka egiteko eskubidea aitortzen du, bai eta oposizio hori dirulaguntzen eskabideak aurkezteko epearen barruan modu arrazoituan aurkezteko betebeharra ere.

Arestian adierazitakoa gardentasunaren eta datuen babesaren arloan indarrean dagoen araudiak arautuko du, bereziki, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Legeak eta (EB) 2016/679 Erregelamenduak, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoak.



9. DIRULAGUNTZAREN ORDAINKETA

Deialdia ebatzi eta ebazpena interesdunei jakinarazi ondoren, onartutako zenbatekoa ordainketa bakarrean egingo da.

Ordainketa interesdunak emondako kontu zenbakian egingo da transferentzia bidez, gehienez, erabakia hartu den egunetik hurrengo hilabetearen barruan.

10. DIRULAGUNTZEN ITZULKETA

Itzulketa, Dirulaguntzen Udal Ordenantza Orokorrak, Dirulaguntzen Lege Orokorrak eta aplikagarria den gainerako araudiak xedatzen duten moduan egingo da. Edozelan ere, jasotako zenbatekoa itzuliko da justifikatzeko agiririk aurkeztu ez denean, edo behar moduan justifikatu edo behar beste agiri aurkeztu ez denean. Osorik bete ez denean, itzulpena ez-betetzeari dagokion zenbatekora mugatuko da. Bardin egingo da gainfinantzaketa dagoela egiaztatzen bada dirulaguntza justifikatzeko aurkeztutako agirietan.

11. DATU-BABESA

Elorrioko Udalak, IFZ: P4803900B, helbidea Herriko Plaza z.g. Elorrio (48230), Bizkaia, emandako datu pertsonalak erabiliko ditu dirulaguntzen deialdi hau kudeatzeko. Tratamendu hori legitimatzen duen oinarria Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legearen Testu Bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren ondoriozko legezko betebeharrak bat betetzea da.

Datu horiek behar-beharrezkoak diren zerbitzuak ematen dituzten hirugarrenei baino ez zaizkie jakinaraziko, eta ez zaizkie hirugarrenei lagako, legezko betebeharra edo interes publikorako ez badira behintzat.

Elorrioko Udalak datu pertsonalak gordeko ditu erantzukizunen bat eska dakioken legezko epean.

Dirulaguntzen deialdi honetan eskatutako datuak behar-beharrezkoak dira lehen adierazitako helburua behar bezala lortzeko; beraz, datu horiek eman ezean, Udalak ezin izango du bermatu prozeduran behar bezala parte hartuko duenik.

Nolanahi ere, interesdunak datuetara iristeko, datuak zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko eta mugatzeko eskubideak baliatu ahal izango ditu, alkatea@elorrio.eus helbidera idatzizko eskaera bidalita. Interesduna Udaleko Datuen Babeserako Ordezkararekin (DPO) harremanetan jarri ahal izango da, helbide elektronikoa honetan: dpo@elorrio.eus

Era berean, jakinarazten dizugu Datuak Babesteko Euskal Bulegoan erreklamazioa aurkezteko eskubidea duzula.



Elorrioko udala

12. ARAUDI APLIKAGARRIA

Oinarri hauetan aurreikusi ez den guztirako Dirulaguntzen Lege Orokorrak, 38/2003 Legea garatzen duen Araudiak eta aplikagarria den gainerako araudiak xedatzen dutena aplikatuko da.